

Kale antzerkia

Datorren ostiralean, azaroak 29, CARITAS GIPIZKOAKo Etxerik Gabeko Pertsonen (EGP) sailak, sentsibilizazio ekintza bat egingo du kalean. Ekitaldia Donostiako Tabakalerako eraikinaren kanpoaldean burutuko da, eta 17:00etan hasiko da (kokapena: Tabakalerako taberna ondoan, Nestor Basterretxea kalea 3).



Ekintzaren helburuak:

- Etxerik Gabeko Pertsonen (EGP) bizi dituzten egoeren inguruan herritarrak sentsibilizatzea, kolektibo honetako pertsonen inguruan dauden zenbait baieztapen edo aurreiritziri aurre egiteko.
- Kalean bizitzeak duen arazo larriaz jabetzea: egoera horretan dauden pertsonak zein diren ezagutu, eta euren egunerokoa zein den jakin.

Kale antzerkiaren eskutik, CARITAS GIPIZKOAKo Etxerik Gabeko Pertsonen sailak, kolektibo honen sufrimendu istorietatik, euren errealitatearen berri eman, eta irtenbideak aurkitzeko berauekin enpatia erein nahi du.

Bide batez, ekimenak, bizikide garen errealitate sozial bat gehiago ezagutarazten lagundu nahi du. Zehazki, Kaleko Antzokiaren eskutik, CARITAS GIPIZKOAKo Etxerik Gabeko Pertsonen sailak hainbat baieztapen desegin nahi ditu:

Adibidez:

- Pertsona txiroek ez dute ikasten, eta ez dute lanik egin nahi.
- Pertsona ludopata eta alkoholikoak dira.
- Aterpetxeetan sartzeko aukera dute baina ez dute nahi: nahiago dute kalea egon.
- Beraiek bakarrik baztertu eta urruntzen dira, ez baitituzte gizartearen arauak errespetatu nahi.



- Oso jende eroso da. Ez dute ez borrokatu ezta aurrera egin nahi ere: laguntzetatik bizi nahi dute.
- Euren patuaren arduradunak dira: beraiek egin dituzte ekintzengatik daude kalean.

EGUNA: Azaroak 29 (ostirala).

ORDUA: 17:00etan

LEKUA: Tabakalerako tabernaren ondoan, Nestor Basterretxea 3 kalean.

ANTOLATZAILEA: CARITAS GIPUZKOAko Etxerik Gabeko Pertsonen saila.